

«Biluzi egin naiz, idazleak soilik biluzi daitezkeen ozartasunaz»


Pablo Antoñana idazleak liburu batean bildu ditu bere kazeta zutabeak

Alberto Barandiaran / Iruñea

Nortasun agiria bezain adierazgarriak. Pablo Antoñanak kazeta zutabeak bildu ditu liburu batean, eta orduko beldurak, egonezinak, amorrak, gogoak eta galdera lotsabarikoak, orain denak apailatuta ikusita, itxurosoagoak iruditu zaizkio. Bizitzatik barna egin dituen urratsen lekuak direla esan zuen egileak berak atzoko aurkezpenean.

«EZ dakit kazetaritza edota literatur artikulua diren, oraindik eztabaidagai baita kazetaritza literatura den edo ez, baina nik uste dut baietz, gehiago dutela literaturatik kazetaritzatik baino». 1994tik 1998ra bitarte *Egin* egunkarian argitaratutako zutabeak dira atzo Txalapartak aurkeztutako *Miniaturas* liburuaren mami-hezurra. Antoñanaren liburu guztiek bezala, barruko mamuak askatzen ditu, idatzi egiten duen nekazari baten aldaterearen tik-takak.

Ez daude nahi zituzten guztiak, ordenagailuak edo



JOXE LACALLE

Pablo Antoñana idazlea, atzoko prentsaurrekoan.

deabrutxoak, idazlea berak zioen bezala, eraman egin zituelako asko eta asko, baina garbi dago jende xehearen sofrimendurekin, ahularen gaineko zanpaketarekin, boteretsuen prepotentziare-

kin, gai horiekin guztiekin oso lotura handia dutela denek. «Ez dut errealitatea oso-osorik hartu nahi, hilkorra baita, eta ahanzturara igarotzen baita; egunkarietan idazten ditudanean idatzi egiten ditut ez kolore ez pasiorik galdu ez dezaten, eta denbora batean irakurri ahal daitezzen. Nahi dut bizitzatik barna egiten ditudan urratsen lekukotasuna utzi, hori da guztia. Idaztea beharra dut, ezinegona, eta idatzi gabe bizitza nekosoza zait».

«Idaztea larrugorritzea da»

No estamos solos, Noticias de la Segunda Guerra Carlista edo *La cuerda rota* bezalako liburuei esker idazle askoren

maisutzat hartu dute Antoñana. Egun, kazeta zutabeak idazten ditu oraindik *Diario de Navarra* eta *Gara* egunkarietan, eta horri esker «bizirik sentitzearen sentazioa» duela esan zuen atzo idazleak. «Biluzi egin naiz, idazleak soilik biluzi daitezkeen ozartasunaz», esan zuen atzo, «idaztea irakurlearen aurrean larrugorritzea delako».

Horregatik, egun batez kazeta baten formatu estu hartan bizi ziren bizi puska horietan bere bizitza ere kontatu duela aitortu zuen Antoñanak. «Egunero, errepikakor, hemen utzi ditut nire obsesioak, nire beldurrak, nire dudak, nire bizi-larritasunak. Gehien akuilatzen nauten arrazoiak dira heriotza, gezurra, esplotazioa, jende xumea». «Ezin dut nire burua ezkutatu; hor nago, artikulua horietan, eta irakurtzen dituenak nik baino gehiago daki nitaz. Hor dago nire nortasun agiri fidela».

Txalapartak, bestalde, Iruñeko Liburu Azokarako aurkeztuko dituen nobedaden zerrenda ere eman zuen atzo. Euskarazkoen artean aipatzekoak dira Joxe Iriarte *Biki-la-ren Borrokaren gorrian*, bere bizitzaren eta borrokaren autobiografia neurri batean; Xanti Begiristainen *Barreak eta haserreak*, zeinak Nafarroako hainbat lekutako pasadizo eta gertaera xeble biltzen dituen, eta Juan Martin Elexpuruk itzulitako *Esku bakarrarekin irakurtzeko kontuak*, Pilar Cristobal espainiarrarena. Erdarazkoen artean, Edorta Jimenezen *Baleen barbaroa* liburuaren itzulpena, eta Mumia Abu-Jamal preso estatu batuarraren *Brota la vida liburu* aipa daitezke.

Jesus Ferrero:
«Literatur kritikarien lana didaktikoa behar luke, ez txikitzailea»

■ Donostiako Literatur Sorkuntzari Buruzko III. Jardunaldietan aritu zen atzo

Amagoia Iban / Donostia

BELVER YIN eleberriarrekin ezagutarazi zuen bere burua Jesus Ferrerok (Zamora, 1952). Irakurle eta kritikarien txaloez gain, 1982ko Bartzelona Hiriko Gaztelaniazko Eleberraren Saria jaso lehen nobela harekin. Ondoren etorri ziren *Opium*, *Lady Pepa*, *Debora Blenn*, *El efecto Doppler* (Plaza & Janesen Nazioarteko Eleberrari Saria 1990ean), *Alis el salvaje* eta *Los reinos combatientes*. Hiru poesia liburu ere idatziak ditu.

Atzo Donostian izan zen, Ana Maria Moix eta Victor Morenorekin batera, Felipe Juaristiren esanetara kritika literarioaz aritzeko. Mahai-inguruan parte hartu aurretik prentsaurrekoan adierazi zuten, literatur kritikarien lana ezagutzen du, berak ere kritikak egin izan baititu. «Uste dut zakarkeria asko idazten dela, eta hori ez dela kritikariaren lana, irakurleari berak irakurria duen lanaren koordinadak ezagutaraztea baizik. Literatur kritikarien lanak pedagogikoa behar luke, ez txikitzailea», esan zuen.

Hala eta guztiz ere, kritikak bere ustez dituen «interes ekonomiko eta politikoak» ulergarriak dira, gizarteko arlo guztietan gertatzen baita interes hori: «Eta ez dakit egungo *trust* editorialen ugalketak hori bultzatu duen edo ez».